

4-DIRU SARRERAK

Gure hauzasko jaki zerbitzuak gastu eta irabazi batzuk eragingo ditu gure enpresan. Janaria kontsumituko dutenetaz aparte, tabernak ere ordaingu egingo ligukete, jakien prezioetatik deskontatuz, haiei egiten diegun publizitateagatik. Egiten den enkargu bakoitzaren kutxan haien burua aurkeztuko genukeelako, bezeroari jakinaraziko baitzaio modu detailatu eta estetiko batean jaten hari direnaz eta hornitzailearen historiaz. Honela, negozio txikiek bezeroak eta prestigioa eskura dezakete.

Jasotako diru sarrerak online (PayPal, Visa, Mastercard, Bitcoin, Bizum...) naiz efektiboki (enkargua helburura heltzen denean garraioileari dirua emanaz) izan daitezke. Aplikazioan erosketa gauzatzekoan, bi ordainketa eskaintzen ditugu: alde batetik, eskatzaileak berarentzat den menua ordainduko du arinago aipatu ditugun aukera bat egokituza. Bestetik, ordaindutako menua oparitzeko aukera ematen diogu kontsumitzaileari; aukera honen bidez erosketa egindako pertsonak kode bat jasoko du eta horrek nahi duen pertsonarekin partekatzeko aukera izango du. Kodeak 2 asteko iraungitze data du eta bakarrik aldi batean erabili dezake jaso duen pertsonak.

Gure diru sarrerarik garrantzitsuenak guk eskainitako janariaren truke jasoko ditugun irabaziak izango dira. Gure eskaintzaren barnean 4 prezio desberdin bereiziko dira menu motaren arabera.

1. Menu “Básico”-a: 10€-tan saltzen da. Multzo honetan guri, enpresa gisa, 7€-tatik beherako kostua jasanarazi diguten produktuak sartuta daude.
2. Menu “Estandar”-a: bezeroek 15€ ordainduko dizkigute eta multzo honetan 7-12€-ko tartean kokatzen din balioak dituzten produktuak sartuko dira.
3. Menu “Deluxe”-a: bezeroentzat 20€-tara aurkeztuko da, baina, guri enpresa gisa 12€-tik 17€-tako kostea izango dituzte produktu hauek.
4. Menu “gold”-a: 30€-tako prezioa dauka. Hemen, 17€-tatik 27€-tako produktuak eskainiko ditugu.

